

## Ignasi Vila irakasleak Ekomu masterrean hartuko du parte

2010/11/04

**Azaroaren 8an** Ignasi Vila irakasle ospetsua Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan da, Ekomu masterreko arduradunekin, Ignasi Vila bertan hartuko du-eta parte, irakasle gisa, on line Gironatik. Masterrean ikasgai bat emango du **“Políticas que regulan el plurilingüismo y la interculturalidad”**. Bertan, Vila irakasleak historian kokatzen ditu fenomeno hauek, erlazionatzen ditu filosofiarekin, ideologiarekin eta politikarekin. Gaur egungo gizartean ere bizirik dauden gaiak dira, eta berdin topatzen ditugu ideología eta politika kontuak gaiokin nahasian. Gaur egun Europatik datozen marko eta legeak aztertzen dira, orobat, masterreko materia horietan. Eta gaur egungo gizartean zer-nola aplikatzen diren. Era berean hezkuntzaren munduarekin lotzen dira alderdi horiek.



### Ignasi Vila

Ignasi Vila Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntzako katedraduna da Gironako Unibertsitatean. Garai batean zuzendu zituen Bartzelonako eta Gironako unibertsitateetako Hezkuntza Zientzietako Institutuak. Dekano ere izan zen Hezkuntza eta Psikologiako Fakultatean, Gironako Unibertsitatean. Ikerkuntzari dagokionez, batez ere landu du hezkuntza elebidunaren antolakuntza eta ebaluazioa, azpimarratuta familiatik eskola bitartera gerta daitezkeen hizkuntza aldaketak. Horrezaz gain, lantzen ari da ikasleen nortasunaren eraikuntza, eskolaren testuingurutik abiatuta. Ikerkuntza talde bat zuzentzen du, “Cultura y Educación”, eta GRAM elkarteko lehendakaria da: “Grups de Recerca i Actuació amb les Minories Culturals i els Treballadors Estrangers”.

### Argitalpenak

Hona Ignasi Vilaren azken aldiko zenbait argitalpen:

- Besalú, X. y Vila, I. (2007). La buena educación. Libertad e igualdad en la escuela del Siglo XXI. Madrid: MEC/Catarata.
- Vila, I. y Casares, R. (2009). Educación y Sociedad. Barcelona: Horsori.
- Siqués, C. y Vila, I. (2007). Linguistic plurality and the learning of the school language. En P. Cuvelier, T. du Plessis, M. Meewis and L. Teck (Eds.), *Multilingualism and Exclusion. Policy, practice and prospects* (pp. 181-196). Pretoria: Van Schaik.
- Huguet, A., Lasagabaster, D. y Vila, I. (2008). Bilingual Education in Spain: Present realities and future challenges. En J. Cummins y N.H. Hornberger (Eds.), *Encyclopedia of Language and Education*, 2nd. Edition, Volume 5: Bilingual Education (pp. 225-235). New York: Springer.
- Vila, I. y Siqués, C. (2009). El uso de la lengua familiar y el aprendizaje de la lengua de la escuela. En M.I. Pozzo (Ed.), *Migraciones y formación docente. Aportes para una educación intercultural* (pp. 213-240). Berna: Peter Lang.
- Vila, I., Canal, I., Mayans, P., Perera, S., Serra, J.M., Siqués, C. (2009). Las aulas de acogida de la educación primaria de Cataluña el curso 2005-2006: sus efectos sobre el conocimiento de catalán y la adaptación escolar. *Infancia y Aprendizaje*, 32(2), 307-327.
- Siqués, C., Vila, I. y S. Perera (2009). Percepciones y actitudes del alumnado extranjero y del profesorado: un estudio empírico en las aulas de acogida de Cataluña. *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, 7(1), 103-132.
- Esteban, M., Bastiani, J. y Vila, I. (2009). El impacto de la cultura en el autoconcepto. Un estudio con mestizos de distintos entornos educativos de Chiapas. *Cultura y Educación*, 21(3), 361-370.
- Vila, I., Siqués, C. y Oller, J. (2009). Usos lingüísticos de l'alumnat

d'origen estranger a l'educació primària de Catalunya. Zeitschrift für Katalanistik, 22, 95-124.

- Esteban, M. y Vila, I. (en prensa). Modelos culturales y retratos de identidad. Un estudio empírico con jóvenes de distintos contextos sociodemográficos. Estudios de psicología, 31(2).
- Vila, I., Esteban, M. y Oller, J. (en prensa). Identidad nacional, lengua y escuela. Revista de Educación, 353.
- Oller, J. y Vila, I. (en prensa). Effects of sociolinguistic environment and the length of residence on the linguistic performance in Catalan and Spanish of sixth grade immigrant pupils in Catalonia. Sociolinguistic Studies, 41.